

Helburua, ondare digitala jasotzea, gordetzea eta hedatzea

15 webgunetako edukia jaso dute orain arte, baina datorren urtean beste 600 baino gehiago berreskuratzeko asmoz dabilta.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Ondarenet proiektua jarri du martxan, artxibo erraldoi bat izango dena. Hain zuzen, bertan, informazioaren teknologia berriekin sortzen joan den euskal ondare digitala jasotzeko, gordetzeko eta hedatzeko asmoa dute egileek.

Proiektuaren aurkezpenean adierazi dutenaren arabera, orain artean, 15 webgunetako edukia jaso dute, baina datorren urtean beste 600 baino gehiago berreskuratzeko asmoz dabilta.

Ekimena Europar Batasunaren liburutegi digital bat sortzeko estrategian kokatu dute. Liburutegi horrek sei milioi dokumentu izango ditu 2010ean eta biztanle guztien eskura izango da bertako materiala. Hala, Ondarenet artxibategia bestelako lekuetako ereduari jarraiki ari da lanean, esaterako, Pandorakoari (Austriako Liburutegi Nazionala), Minervakoari (Europar Batasuna) eta Padicarrekoari (Kataluniako Liburutegi Nazionala).

Kultura Ondarearen Zuzendariak, Arantza Arzamendik, esan du, Ondarenet Liburutegi Digitala bezalako proiektu handiagoen lehen urratsa baino ez dela. Azken horrek, historian izan diren fondo bibliografiko publikoen zein pribatuen digitalizazioa ekarriko du. "Asmoa paperean sortutako ekoizpen bibliografikoa formatu digitalera pasatzea da", esan du Arzamendik.